

Eguraldiaren iragarpena



bama Netanyahurekin bildu zen, Palestinaz hitz egiteko. Gatazka-
ren konponbiderako giltzarri, 1967ko

mugen baitako Palestinar Estatu aldarrikatu zuen Obamak, eta ezin dela “Estatu judutar eta demokratiko baten ametsa okupazio iraunkor baten bidez lortu” esan zien. Baina Netanyahuk muga horiek “onartezinak” direla adierazi du, Israelek ez duela 67ko mugetara atzera egingo, eta Palestinako Estatuaren biziraupenak “Estatu judutar bakarraren bideragarritasunetik” etorri behar duela. Ez dio Netanyahuk hori Obamari esaten aurre handiko gizona delako edota Osborneren garai bateko zezanak zituzten barrabilak baino bikainagoak dituelako bereak, ez, ez da horregatik. Edonork ezin dio hori esan, hala ere, AEBetako presidente bati. Netanyahuk Obamari esaten diona esaten dio inork ezin esan diezaiokeena esan diezaiokeelako berak. Profetiatik ateratzen zaiona eta gehiago. Zergatik ez dio ba esango Obamari benetan esan nahi diona, esateko inolako eragozpenik ez badu. Are gehiago, eta nolabait esateko, Netanyahuk ahal duen guztia egingo du, Obamari nahi duena esaten dionean, goi mandatariaren hitzaldian munduko goi mandatariak nortzuk diren agerian uzteko. Eta orain da unea betiko eguberrianoa sartu eta, bere jainkotasun guztiarekin, antisemita, anti-israelarra eta anti-judutarra izatea leporatuko didana. Judutar agintariak badute arazotxo bat, eta da naziek sei milioi judutar hil zituztelako aitzakia beltzean, haiek ere beste sei milioi palestinar hil arterainoko eskubide osoa dutela sinistuta daudela. Ez sinistua bakarrik, egin ere inpunitate osoz ari dira herio-dantza bat egiten. Eta horrelakorik esaten badut, Abrahamen misila hamar mandamenduetara

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

tik azkenetik sartuko didate-
la esango didate. Wall Street
karrikaren kantoian, negu
gorrian, Ameriketako lobby
israelarreko kide guztiek,
guztiek egiten diote barre
gauero jendeari otoi eska-
tzen dagoen gizonari, eta
inork ez du kontuan hartzen
munduaren neguko gau
honetan gizonak zer atseka-

berekin egiten dion dei eguzkiari. Munduko eskuinak itzalpean nahi ditu herriaren botereaz, *benetako demokraziaz*, indar ekonomiko-
koez, sistema kapitalistaz, ongizatearen gizartean *ezinegonaz* zerbait esaten duten guztiak. Nik politikaz gauza handirik ez dakit, baina eskuina, eskuin politikoa esaten zaion hori alegia, ez nuke ez politikaren ez ideologiaren ataletan sartuko, bi hankako basapiztien atalean baizik. Eskuinaren “ideologia”, hori baita bereziki: basakeria. Basakeria izugarria. Eta munduko eskuina ehiza-txakur asezinaren antzeko da, harrapakinaren atzetik. Italia kulturean Silvio Berlusconi, Frantzia intelektualean Nicolas Sarkozy eta Espainia artistikoan Cospedal, Aguirre, Camps, Trillo eta 2011ko hauteskunde munizipalak amaitu eta ordubetera Espainiako mapa ia guztia urdin-urdinez bilakatu duten beste hamaika señorito pottokitto gehiago. Gure herrietan ez, ordea, esango dit baten batek, baina Euskadiko hiriburuan ere berdin, Gasteizen

urdin. Uda giroarekin hasi dugu astea. Gauean sortuko den behe-lainoa laster altxatu eta zerua oskarbi geratuko da lurralde osoan. Haizea ahul ibiliko den arren, hegoaldeetik sartuko da, ondorioz termometroa erraz iritsiko da 26-28ºra. Zerua erabat urdin agertuko da, urdineak nagusituko dira lurrean, eta Madrilgo Sol Plazako kanpalekuetako toldoetan ere urdina balduko da. Giro argia eta urdina egongo da beraz. Baina eguzkirik ez. ■



Nik politikaz gauza handirik ez dakit, baina eskuina, eskuin politikoa esaten zaion hori alegia, ez nuke ez politikaren ez ideologiaren ataletan sartuko, bi hankako basapiztien atalean baizik. Eskuinaren “ideologia”, hori baita bereziki: basakeria

